

Hau da nire odola

**Maidor Iantzi
Goienetxe**

Hamahiru urterekin (hilabete gutxira hamalau egiteko) ezagutu nuen, topiko guztiekin: beldurragatik negar egin nuen, amak «jada emakume zara» erranez zoriondu ninduen eta aitak animoak eman ez agurtu ninduen ikastolara bidean. «Kontuz tantekin» abisatu zidan amak konpresa jartzen ari nintzela eta «zer da hau?» galdetu zidan logelako horman nuen egutegia seinalatuz. «Nire desgrazia egunak», erantzun nion. Apirilaren 19a zen eta hurrengo hilabeteetako 19ak eta ondoko bost egunak markatu nituen (ez naiz oroitzen zein kolorez, baina bel-

tza izan zitekeen). Informazio falta ez zen aitzineko belaunaldiek zutenaren adinakoa, baina ikaragarria zen oraindik. Izeba minez lehertua egoten zen ohean, ezin inori kontatu, amari ere ez. Eskolan, sekulako iskanbila sortu omen zen haurrak nola egiten ziren azaldu behar zutela iragarri zutenean. Gure “sexualitate tailerrak” ez ziren aunitzez zabalagoak: kondoia platano batean jartzera mugatzen ziren gutxi gorabehera, irri lotsati eta gorritasunen artean.

Hilekoa lehenengoz etorri eta hogeiturtera deskubritzen ari naiz emakumeak ziklikoak garela eta odolarekin gau-

den egunak gure negua direla (barnerako uneak), gero udaberria etortzen dela, obulazioarekin batera uda, eta hilekoaren aitzinetik udazkena. Ate pila irekitzen ari zaizkit honekin eta pozarren nago. Era berean, izugarria iruditzen zait orain arte honetan erreparatu ez izana, hain aberasgarria eta interesgarria izanik. Gure odolaren inguruko tabua, misterioa eta izan dugun irudi txarra ez da kasualitatea, Elise Thiebaut idazleak “Esta es mi sangre” liburuan umorez azaltzen duenez. Bada biolentzia handiagorik gure gorputzez ezin solastatzeaz baino? Hilekoa gizonak balute... •

Egin apustu!

**Xabier Mikel
Errekondo**

Orain arte apustuak egiteko ohi-tura batez ere herri kirolei lotuta egon da, baina plazan bertan egon behar zenez oso jende gutxik egiten zuen apustu. *Tragape-rras* makinan jokatzeko gaizki ikusita zegoen eta, hala ere, loteria eta kinie-lekin batera diru erraza lortzeko tentazioa piztu dute.

Egun errealitatea oso bestelakoa da, publizitatean aurpegi ezagunekin inbertitu milioien eta teknologia berrien eraginez gaizki ikusia eta marjinala

zen jokoa “prestigiatu” eta masifikatu egin da, batez ere kirol-apustuak. Diru erraza lortzeko amarruen zelofan berrituak mendekotasun gordina ezkutatzen du ordea.

Urtero milaka jauzten ditu miseria egoerara baina kaltetuenak langile eremuetako gaztetxoak dira, gabeziei eta arazoei ametsezko irtenbidea eman nahian diru errazak eta kirolaren grinak bultzatuta kirol-apustuen pozoian eroriak. 12-22 urte artekoen ia herenak inoiz apusturik egin du eta

hamarretik batek sarri jokatu du azken urtean. Arazoa larria da, baina konponbidea herritarrek eman behar diote Azpeitian, Gasteizen edo Bilbon bezala ala agintariak dituzte hartuko neurri zorrotzak? Eredu hori dute Italia: alkoholarekin eta tabakoarekin bezala, publizitatea eta sponsorizazioa debekatu. Jokoa negatibizatu egin behar da, eta kalteak azpimarratu, horrela ikusaraziz bereziki gazteei.

Apustu makinak droga gogorra dira. Publizitatea “Sobera” dago! •